


# Karkara

*karkara.eus*

 **Orioko eta Aiako aldizkaria** · 2016ko maiatzaren 27a · Bailearen zenbaki berezia



## 1901. urteko argazki berritua

115 urte egin zituen atzera Orioko herriak maiatzaren 14an. Kantauri itsasoko azken balea oriotarrek harrapatu zutela ospatu zuten.

**3**

**Balorazioa**

Lourdes Salsamendi

**6**

**Argazki bilduma**

Antzerkia

**16**

**Erreportajea**

Bertsoen irakurketa

**30**

**Bertsoak**

Saregileei omenaldia

**PUBLIZITATEA****Balea agertu zen...**

2016ko maiatzaren 14. egunean balea agertu zen eta ondo baino hobeto ospatu genuen, eguraldiak lagun eta Jaungoikoari esker, egun ederra. Bikain oriotarrak, esan beldur gabe.

Kultur zinegotziak parte-hartzaile eta orokorrean herritar guztiei esker-rrak emateko idatzi du medioetan. Xume, motz eta egoki, denera iristen eta ondo egindakoa azalduz eta esker-tuz. Azken lerroetan barkamena kale garbiketan hutsune bat egon zelako. Ondo dago ardura politikoa bere gain hartzea baina ondo legoke baita ardura teknikoa baten batek aitortzea.

Hurrengo egunean jaunartzeak zeuden. Ez da Orion egiten den lehengo festa eta ez da izango azkena. Oraintxe argitaratu den garbiketa kontraturako lehiaketan neurriak jarri beharko ziren protokolo hutsune horiek gehiago ez gertatzeko.

Maiatzaren 14. egunean ikusle eta jarraitzaileei tokia hartzen, bonbilladun bi begi handiekin eta traba besterik ez

zutela egiten, hainbat kotxe zeuden Talleres Arostegi aurrean. Jendea kotxe tarteetan balea eta traineruak ikusi nahirik. Denbora da Udaletxeak txostenak eskatuta zituela eta, azken Obra eta Zerbitzu batzordean informatu zenez, orain dela gutxi jaso dira aitortuz tailerra itxita dagoen bitartean inork ezingo duela bertan kotxerik aparkatu. Beraz, laster espazioa berriro denentzat izango da.

Kalean gora, kalean behera denetik entzuten da: balea puzgarria egiteak 30.000 eurotako kostua izan duela, udaletxeak afari bat ordaindu duela balea egunaren kontura, etab. Eskatzen duguna zera da, gardentasun printzipioa erabiliz eta beste jaietan egiten den bezala, zein aurrekontu eta zenbat gastatu den azaltzea herritarren informazio eskubidearen alde eta zurrumurrueri aurre egiteko. ■ **Orain**

**Eskerrik asko**

Salatxo Abesbatzak Orioko herriari eskerrak eman nahi dizkio Balearen

Egunerako prestatu genituen pin eta baleei egindako harreragatik.

Herri guztiak gure pinak nola jantzi dituen eta, hainbat taberna, denda eta balkoiak gure baletxoekin apainduta ikusteak benetan poztu gaitu.

Salatxo Abesbatzako kide guztien partez, benetan, eskerrik asko!

Bestalde, ekainaren 17 arako egin diguten Balea elkarterako deialdiari baieztatu emango diogula ere baieztatzen dugu. Beraz, hantxe izango gara afari-merienda egiten Baleako lagunekin batera!

Aupa Orio! ■ **Salatxo Abesbatza**

**Kolaboratzaile guztiei**

Balearen zenbaki berezi hau egiteko hainbat oriotarren laguntza izan dugu. Eta horiei guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu beren argazkiak gurekin partekatzeagatik eta gurekin batera txiokatzeagatik.

Beste behin, argi gelditu da KARKARA guztiok egiten dugula. Eskerrik asko!

■ **Karkarako lan taldea**

EUSKARRI GUZTIETAN ESKURA

KARKARA.EUS  
ZAUDEN LEKUAN ZAUDELA

K

# BALEAREN EGUNA

## Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

**Kultur etxea**  
**20810 Orio**  
**943 83 15 27**

**karkara@karkara.com**  
**www.karkara.eus**

### Editorea

Karkara taldea  
kultur elkarte

### Erredaktore burua

Miriam Garcia

### Erredakzio taldea

Onintza Aiestaran,  
Olatz Artola,  
Iñigo Exposito,  
Jon Garate,  
Elizabete Manterola  
eta Rikardo Uzquidun

### Publizitatea

Idurre Telleria

### Ale honetako kolaboratzaileak

Iban Eiguren,  
Ana G. de Txabbarri,  
Mikel Iribar,  
Iñaki Iturain  
Luis Lizarralde  
Joxemari Olasagasti,  
Joxeju Olasagasti,  
Lourdes Salsamendi

### Diseinua

Saioa Perona

### Banatzzaileak

Rodolfo Jimenez,  
Leire Bravo (Orio)  
Eli Irureta (Aia)

### Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)  
Lege gordailua SS-346/90  
ISSN 1132-1105  
Tirada 3.200 ale

KARKARAK ez du bere gain har-  
tzen aldizkarian adierazitako  
esanen edota iritzien erantzun-  
kizunik. KARKARAN argitaratu-  
takoak berreman daiteke,  
osorik edo zatika, baldin eta  
iturria aipatzen bada.

TOKIKOM

Bikain

### LAGUNTZAILEAK



Aiako Udala



Orioko Udala



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



## BALORAZIOA

### LOURDES SALSAMENDI

2016 ko Balearen Eguna positiboki baloratzen dut orokorrean. Berriro ere ikusi da oriotarrok gai garela horrelako festa handi bat antolatzeko, ikusita, gainera, oriotar askok parte hartze zuzena izan duela festan.

Gure balea umeen ikuspegitik ikusi genuen, marrazki lehiaketan herriko ume askok parte hartu baitzuten, era guztietako baleak marrazten.

Ikusi genuen Benito Lertxundi, Orion berriz bera entzuteko gogoia zegoela begi bista-takoa zen, kontzertura hurbildu zen jendetzagatik bakarrik.

Balearen Egunerako prestatu genituen hitzaldiak ere maila handikoak izan dira, nahiz eta jendetza ez bertaratu, han izan zirenek Lourdes Odriozolaren eskutik Mutiozabalen figura ezagutzen gozatu zutela esango nuke. Oso interesantea izan zen, benetan.

Enrique Otero, *Aixola* eskolakoak, eta Xabier Agote, *Albaolakoak*, eman ziguten hitzaldian Mutiozabalen etorkizunaren inguruan gako asko eman zizkiguten, nondik bideratu, alegia. Hori bai, beti kontuan hartuta herrian ditugun adituen iritzia.

Iñake Irastorza oriotarra herri antzerkiaren zuzendaria izatea luxu bat da, bere lana paregabea delako eta gai delako herritarrei ilusioa transmititzeko. Herri antzerkia da Balearen Eguneko bihotza.

Hainbeste jende jai giro onean eta tabernak eta jatetxeak jendez beteta ikustea pozgarria da. Kanpotarrei Orioren oso ikuspegi ona erakutsi diegulakoan nago.

Asteburua borobila izango zen igandeko komunio egunerako plaza eta herria orokorrean txukun egon izan balira; baina, nahigabeko akats batengatik, ez zen horrela izan. Udalak asko sentitzen du gertatutakoa, guztiz nahigabekoa izan baitzen.

Herritarrak, herriko taldeak eta Udala elkarlanean aritu gaitezkeela ikusi dugu beste behin, eta horixe da handiena niretzat.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAIALAK  
(Hizkuntza Politikarako Saillaburuetzak) diruz lagundua

# BALFAAREN BERTSOAK

## 1

Mila bederatzireun da lenengo urtian maiatzaren amalaz garren egunian Oriyoko erriko barraren aurrian balia agertu zan beatzik aldian.

## 2

Aundiya bazan ere azkar ibilliyan bueltaka an zebillen juan da etorriyan ondarra arrotubaz **murgil** igeriyan zorriyak zeuzkan eta ayek bota nayan.

## 3

Baña zorri mantsuak egin zuten junta gerra egin biar zala baliaren kontra naiz gogor arraskatu ez utzi aguanta odola txupatubaz muturra sartuta.

## 4

Zorri asko zeuzkan da azkure buruan argatik ondarretan arraskatzen zuan ala ere zorriak kendu ezin zuan baliaren indarrak baliyo etzuan.

## 5

Ikusi zutenian ala zebillela beriala juan ziran treñeruen billa arpoi ta dinamitak eta soka pilla aguro ekartzeko etzan jende illa.

## 6

Bost **treñero** jun ziran patroi banarekin mutil bizkor bikain ta guztiz onarekin Manuel Olaizola eta Loidirekin Uranga, Atxaga ta Manterolarekin.

## 7

Bost **txalopa** aietan jun ziran gizonak arraunian dirate sendo ta **txit** onak ez dirade balien kontra lo egonak dinamita ikusi zuen an zegonak

## 8

Baliak egindako salto ta marruak ziran izugarri ta ikaratzekuak atzera egin gabe ango arriskuak arpoiakin ill zuten an ziran **anguak**

## 9

Bost txalupa jiran da erdian balia gizonak egin zuten bai naiko pelia ikusi zutenian ill edo itoa **legorretikan** bazan biba ta txaloa

## 10

Sokaz amarratuta jarririkan zagan jendia arraunian gogotik asi zan baña maria kontra naiko lana bazan ala ere eguardirako balia errian zan

## 11

Orduan asi ziran legorrera ateratzen jende guztian antzan bai sokai tiratzen sokak etenda danak ziradela erortzen alako komerikan gutxitan da ikusten

## 12

Ikusteko gauza zan ura legorrian osorik zegoela ill dako egunian itxura galdu zuan gero egoniam mermatu ta txikitu bigundu zanian

## 13

Amabi metro luz gerria amar lodi buztan pala lau zabal albueta pala bi ezpañetan bizarrak beste illera bi orraziak bezela ain zeuzkan ederki

## 14

Begi txikiak eta ao txit aundia obeto esateko ikaragarria metro bi zabaltzen zan au da bai egia larru guzia goma ura animalia

## 15

Gauza ikuzgarrizat egun batzuetan erriaren ondoan arranplan egontzan urrutitikan ere jendia etorri zan milla pesetaraño dirua bildu zan

## 16

Errematian gero jarri zan saltzeko sei milla **errialian** almoneratzeko iñork etzuan artu balia ezertako baño balio zuan koipe biurtzeko

## 17

Koipe biurtu eta arren olio arren **arrua** zan klase onekua zazpi milla errial arren baliua errematian baño protxu obekua

## 18

Gorputez zan milla ta berreun arrua beste berreun mingain ta tripa barruak gutxi janez etzegan batere galdua tiñako sei **pesetan** izan zan saldua

## 19

Eun da hoge duroz balian bizarrak aguro saldu ziran bere egaltzarrak garbitu ta gordiak dauzkagu ezur zarrak kontu aundiarekin lorik eta medarrak

## 20

Egindako gastuak pagaturik danak laubat milla peseta gelditu diranak ondo gozabiltzate oriotar danak sailu diralako emandie jaunak

## 21

Gertatua jarria det egieren alde au orrela ez bada jendiari galde biotzez pozturikan atsegintsu gaude gora oriotarrak esan bildur gabe

# Garaiko hizkeran

Bertsoen gaineko azterketatxo bat eginda, hainbat ondorio atera daitezke bertsoen egileari buruz, eta orduko herritarren hizkera eta bizimoduari buruz ere. Bertsolariak ondo ezagutzen zuen Orio, orduko oriotarrak eta haien hizkera. Antonio Zabalak *Arrantzaleen bizitza* bere liburuan dio berari balearen bertsoak kantatu zizkioten lekuko batzuek ziotenez, bertsolaria Orbegozo abizena zuen apaiz oriotar bat zen.

Orioko gipuzkeran idatzita daude bertsoak. Hitz askotan ageri dira herriko hizkera motaren ezaugarriak:

- Bokalen arteko *y* letra: *Oriyo, aundiya, ibilliyan, etorriyan, igeriyan, zorriyak, ayek, nayan, baliyo, arpoyakin, erdiyan, erriyan, gerriya, biyotzez, oriyotarrak..*
- *U* eta *a* bokal artean *b* tartekatzea: *arrotubaz, txupatubaz, zuben, abo, diruba, gastubak* eta *gertatuba*.
- Hrikez: *eun, lenengo, amalau, erriko, aundiya, arrotu, ayek..*

Gipuzkeran idatzita egoteaz gain, testuak esamolde indartsuak biltzen ditu, *arpoyakin il zuten an ziran anguak*, esaterako. Irakurketa horrez gain, Balearen Bertsoen hiztegia ere aztertu dugu. Hitzak garai hartakoak dira, 1901 urtekoak. Asko eta asko dagoeneko ez dira erabiltzen, besteak beste, hauek:

## HIZTEGIA

### **Murgil:** urpeko igerialdia

**Azalpena:** murgil hitza erabili izan dute herriko haurrek orain dela urte gutxi arte, adierazteko uretara buruz behera egindako saltoa. Galtzen ari da.

### **Txit:** oso, guztiz

**Azalpena:** gure hizkeratik ia desagertuta dagoen hitza darabil bertsolariak.

### **Trefiero:** trainerua

**Azalpena:** izendatuta ageri dira orduko traineruak.

### **Txalopa:** txalupa

**Azalpena:** izendatuta ageri dira orduko traineruak.

### **Anguak:** hangoak

**Azalpena:** esamolde indartsua, gizon haien balorea adierazteko.

### **Legorretikan:** lehorretik

**Azalpena:** Lehorretik dio, ez lurretik. Oraindik toki batzuetan ere horrela esaten da.

### **Arrua:** arroa, pisu-neurri zaharra

**Azalpena:** harni-jasotzaileen artean ibiltzen da. Arroa 11,34 kilo dira.

### **Pezeta:** Espainiako moneta-unitate nagusia

**Azalpena:** lau mila pezeta, 24 euro dira baleak Oriori dirutan ekarri zion aberastasuna. Huskera bat ematen du, baina badirudi orduko dirutan asko izan zela Oriora sartutako dirua. Nolanahi ere, geratu zitzaigun aberastasunik handiena bertsoak dira; horiek ekarri dizkigute 100 urtegeroko ospakizunak.

### **Errial:** erreal, diru izena

**Azalpena:** hainbat baliotako diruei eman zaien izena; gaur egun, pezetaren laurdena. Bisitari bakoitzak bi erreal ordaindu zituen, pezeta erdia; beraz, horren arabera, 2.000 bisitari inguru hurbildu ziren balea ikustera, herri askotatik.

### **Almoneratzeko:** errematea egiteko

**Azalpena:** almoneratzeko enkantean jartzea da, edo errematean.

# Balea, balea!

Goizean goiz hasi zen herri antzerkia aurtengo maiatzaren 14an, herriko hainbat gunetan egin ziren antzerkitxoak, aldi berean. **Balea ikusi zutela oihukatutakoan batu ziren antzezele guztiak**, moilan, eta han hasi zen balearen ehizaldia.

**E**lizaren atzeko zimitorioa garbileku izan zen, Pilliku plaza jolastoki, herriko plaza saregileen lantoki eta plazatik elizarako bidea musikarien oholtza. Errioa balearen eta arrantzaleen borrokaren antzeztoki bilakatu zuten. Antilla inguruan harrapatu zuten balea eta moilara ekarri.

Tostan, gizonak ez ezik emakumeak ere aritu ziren arraunean, 2011n Itziar Etxeberria *Gorriyarekin* hasitako bidetik, duela 115 urte ez bezala. 1901ean bezala, bost traineru joan ziren balea harrapatzera, arpoi eta guzti.

Harrapatutako balea benetakoaren antzekoa zen, ahalik eta berdina egiten ahalegindu baitira. Horretarako, Valentziara jo zuten, Uhaina Antxotegik aurkezpenean azaldu bezala, han baitago horretara dedikatzen den enpresa finenetakoa. Disneyrentzako plastikozko panpinak egiten ditu enpresak, baita haurrak saltoka ibiltzeko puzgarrien tankerakoak ere. Dokumentu zaharrei hautsak kendu zizkieten, 1901eko balearen ezaugarriak jakiteko eta ahalik eta balearik egiantzekoena egiteko. Hamabi metro luze, gerria hamar lodi, Orioko arrantzaleek harrapatutakoak bezala. Balearen

harrapaketa besoak altxatuz ospatu zuten arrantzaleek maiatzeko bigarren larunbatean. Arpoia sartu eta balea arratu orduko egin zuten erriotan behetik gorako bidea, balea atoan.

Moilatik plazarako bidea egungo arraunlariei egiten zaizkien ongi-etorrietan bezala egin zuten: herritarrek egindako pasabidetik, haien biba eta txaloen artean.

Plaza jendez lepo. Oholtzan, ohiko ezinbestekoak: Salatxo abesbatza eta Harribil dantza taldea, balea ekartzegatik arrantzaleei gorazarre egiten. Salatxo abesbatzak Benitok kantatzen dituen balearen bertsoak abestu zituen, eta dantzan gazte nahiz helduak ibili ziren.

Antzezlanean, garai hartako Orioko alkatea eta apaiza ere oholtzara igo ziren, arrantzaleak zoriontzera. Alkateak esan zuen haiek erakutsitako adorea, kemena eta ausardia ez dituela sekula ahaztuko, gizaldiz gizaldi bost traineruetako arrantzale bikainek egindako balentria Orioko herriak gogozan izango duela beti.

Halaxe da, 1901. urtekoa oraindik ere gogoan izan du Orioko herriak 2016an. Eta halaxe izango du 2021ean ere.





**ANTZERKIA**








**ANTZERKIA**





**ANTZERKIA**





**ANTZERKIA**





**ANTZERKIA**



©Efiguren Art



# BALEAREN BERTSOAK

## NOIZ

Mila bederatzireun da lenengo urtian maiatzaren amalau garren egunian

**1**

Mila bederatzireun da lenengo urtian maiatzaren amalau garren egunian Oricko erriko barraren aurrian bala agertu zan beatzik aldian

## NON

Oriyoko erriko barraren aurrian

## ZER

bala agertu zan beatzik aldian.

**2**

Aundia bazan ere azkar ibillian bueltaka an zebile jun da etorrian ondarra arrotuaz murgil igarlan zornak zeuzkan eta aiek bota nalan

**3**

upa aietan gizonak n dirate txit onak ez dirade balien kontra lo egonak dinamita ikusi zuen an zegonak

**3**

Baña zorni mantzuak egin zuten junta gerra egin bear zala balaren kontra naiz gogor arraskatu ez utzi aguanta odola txupatuaz muturra sartuta

**8**

Baliak egindako saito ta marruak ziran izugarri ta ikaratzekuak atzera egin gebe arago ariskuak arpoiakin il zuten an ziran anguak

**4**

Zorni asko zeuzkan da azkure buruan orgatik ondarretan arraskatzen zuan ala ere zornirik kendu ezin zuen balaren indarrak balio etzuan

**9**

Bost balupe jiran da erdian bala gizonak egin zuten bai naiko pelia ikusi zutenian il edo ltoa legorretikan bazan biba ta bakoa

**5**

Ikusi zutenian ala zebilela beriala jun ziran treheruen billa arpoi ta dila eta soka bera aguro eka etzan jend

**10**

Sokaz amarratuta jamirkan zagan jendia arraunian gogotik asi zan

## NORK

Manuel Olaizola eta Loidirekin Uranga, Atxaga ta Manterolarekin.

**6**

Bost trehe oatri bintzok mubil biazon biaz guztiz oriarekin Manuel Olaizola eta Loidirekin Uranga, Atxaga ta Manterolarekin

**11**

uan asi ziran zorrera ateratzen jende guztian antzan sei sokai tiratzen sokak etenda danak ziradela erortzen alako komerikan gubitan da ikusten

**12**

Ikusteko gauza zan ura leporian osorik zegoela ill dako egunian ibura galdu zuan gero egonian mermatu ta txikitu bigundu zenian

**17**

Koipe biurtu eta arren olio iru reun arrus zan klase onekua zazpi mila errial arren balua errematian baño protxu obekua

**13**

Amabi metro luz gerria amar lodi buztan pala lau zabal albueta pala bi ezpañetan bizarrak beste illera bi omaziek bezela ain zeuzkan ederki

**18**

Gorputzez zan mila ta berreun amua beste berreun mingain ta tripa barruak gutxi janez etzegan batere galdua tñako sei pesetan izan zan saikua

**14**

Begi bikiak eta ao txit aundia obeto esateko ikaragarria metro bi zebaitzen zan au da bai egia larru guzia goma ura animalia

**19**

Eun da hogei duroz ballan bizarrak aguro saldu ziran bere egaltzarrak garbitu ta gordiak dauzkagu ezur zarrak kontu aundiarekin lorik eta medarrak

**15**

Gauza ikuzgarritzet egun batzuetan erriaren ondoan arranpian egontzan umutitikan ere jendia etorri zan mila pesetaraño dirua bildu zan

**20**

Egindako gastuak pagaturik danak laubat mila peseta

## ZERGATIK

urrutitikan ere jendia etorri zan mila pesetaraño dirua bildu zan

**16**

Errematian gero jarri zan saltzeko sei mila errialan almoneratzeko iforik etzuan artu bala ezertako baño balio zuan koipe biurtzeko

Gertatua jama det egiaren alde au orrela ez bada jendiari galdie blotzez posturikan atsegintsu gaude gora oriotarrak esan bildur gabe



# Galderen erantzunak bertsoetan

Balearen bertsoek kazetaritzaren ikuspegitik duten balioa aztertu dugu. **190leko maiatzaren 14an Orion gertatutakoaren kronika** bikaina egiten dute bertsoek, orduko gertaeraren kontakizun osoa, bete-betea.

**I**ngelesen kazetaritzak dioenez, albiste bat ondo emateko, bost galderari erantzun behar die. Bost galderak uve bikoitzaz hasten dira: what, who, whe, where eta why; euskaraz: zer, nor-k-, non, noiz eta zergatik. Galdera horiei erantzuna emanez gero, informazio osoa ematen omen da.

Ikus dezagun balearen bertsoek osatzen duten kronikak zenbateraino erantzuten dien bost galderoi.

## Bertsoaren lehen estrofan, noiz, non eta zer

Lehenengo bertsoa bete-betea da, berak bakarrik ia kronika osoa laburbiltzen du. Azaltzen digu noiz, non eta zer gertatu zen.

Urtea, hilabetea eta eguna zehaztuz hasten da bertsoa: *mila bederatzireun da lenengo urtian, maiatzaren amalaugarren egunian*, dio kantuak. Garaia zehaztuta, gertaera historian kokatuta, bertsoaren bukaeran ordua ere eransten du: *beatzik aldian*. Non gertatu zen ere ederki adierazten digu: *Orioko erriko barraren aurrian*. Eta, azkenik, noiz eta non agertu ondoren, zer gertatu zen kontatzen digu: *balia agertu zan beatzik aldian*.

Lehenengo bertsoari, azkena erantsita, kronika osatutzat jo liteke, nahi izanezgero. Azken bertsoan, hogeigarrenean, orduko arrantzale haien egun hartakobalentiariak herritarrengan sortu zuen poza eta harrotasuna adierazten du. Urteen joanean, oriotarrentzako nolabaiteko ereserki ere bihurtu da azken bertsoa: *Gertatua jarri det egiyaren alde... biyotzez pozturikan atsegintsu gaude, gora oriyotarrak esan beldur gabe!*, baita bertsoek osatzen duten kantu osoa ere.

## Aurrerago, nor-k-eta zergatik

Nor-k- galderari erantzuteko, balearen bila joan ziren 60 gizon haien bost patroien izenak ematen dizkigu seigarren bertsoak: *bost traineru joan ziren patroï banarekin, mutil bizkor bikainak guztiz onarekin, Manuel Olaizola eta Loidirekin, Uranga, Atxaga ta Manterolarekin*, protagonista

nagusiak izendatuz.

Balea zergatik harrapatu zuten ere ederki azaltzen digute bertsoek. Argi eta zehatz esaten zaigu zenbateko dirutza pilatu zuten harrapaketa harekin, hamabosgarren bertsoetik hogeigarreneara bitartean: *urrutitikan ere jendia etorri zan, milla pezetaraño diruba bildu zan; sei milla errialian almone-ratzeko; koipe biurtu eta aren oliyua irureun arrua zan klase onekoa, zazpi milla errial aren baliyua, tiñako sei pezetan izan zan saldua; eunda ogei duroz balean bizarrak, aguro saldu ziran bere egaltzarrak; egindako gastubak pagaturik danak, lau bat milla pezeta gelditu diranak*. Ez da zalantzarako tokirik geratzen zergatik harrapatu zuten balea, *txin-txin, txin-txin, diruaren hotsa...* Aberastasun handia ekartzen zien balea batek harrapatzen zutenei.

## Azalpen zehatzagoak

Bost galdera nagusi horiei erantzunda, gainerako bertsoetan balearen harrapaketa azalpen zehatzagoak ematen zaizkigu, xehetasunak, kronika osatzeko. Bertsolariak adierazten digu, esate baterako, nola gauzatu zen ehizaldi hura, nola hil zuten arrantzaleek balea eta nolako marruak egiten zituen baleak-hori dena 8. bertsoan-: *baliak egindako salto ta marrubak ziran izugarri ta ikaratzekuak, arpoiakin hil zuten an ziran anguak*.

Nolako neurriak zituen baleak ere ederki azaltzen digu hamabigarren bertsoak: *amabi metro luze, gerriya amar lodi, buztan pala lau zabal, albuetan pala bi, ezpañetan bizarrak* beste illera bi, orraziak bezela ain zeuzkan ederki; eta hamahirugarrenak: *begi txikiyak eta abo txit aundiya, obeto esateko ikaragarriya... ura animaliya*.

Lehorretik nola bizi zuten ere aipatzen du: *ikusi zutenian illa edo itoa, legorretikan bazan biba ta txaloa*.

Kazetaritzaren ikuspuntutik, beraz, oso ondo landutako kontakizuna egiten dute balearen bertsoek, eta horrek denboran atzera bidaiatzea errazten digu, momentu hartan bageunde bezala ospatzea. Bertsolariari esker.

**BALEAREN EGUNA**





# Moila bazterretik bertsotan



Jon Maia

**P**ello eta Nikolasa alde banatan zituztela, errioa atzean eta plaza aurrean. Honela egin zuten bertsoan Jon Maiak, Uxue Alberdin eta Xabier Sukiak. Bertso saioan Orio eta arrantza batzen dituen zilbor-hesteaz, arrantzak oriotarren izanarekin duen loturaz eta tradizioaren desagerepenaz aritu ziren, besteak beste. Kezkatuta eta nostalgiko, hasieran; preokupazioz baino umoretik, gero.

Bertso saioaren ondotik Harribil Dantza Taldeak hartu zuen moila bazterra.

## 1

Oriok itsasoetan  
ez zuen falta indarrik  
ez zuen falta balerik,  
ez hezurrik, ez bizarrik.  
Dirudienez gaur egun ez da  
lehengo kontuen beharrik,  
ea arrantza ez den bihurtzen  
antzerki hutsa bakarrik.





**Xabier Sukia**

**2**

Igual lehen baziren,  
33 itsasontzi,  
ta orain dozena erdia  
zenbaki hori da jaitxi.  
Bizimodu honek nonbait ez dio  
lehengo bideari eutsi  
baina zerbaitez ez ahaztutzea  
hori ere ez da gutxi.



**Uxue Alberdi**

**3**

Hemen gabiltza hirurok  
ia-ia malko dario,  
arrantzara joango gara  
balea dela medio,  
umore pixkat sartzeagatik  
hemen esanda adio,  
hemen arrantza galdu ezkerro  
getariak eutsiko dio.



# HERRITARRAK








# HERRITARRAK







# Balea harrapatu zuten gizonen bost patroiak

... Manuel Olaizola eta Loidirekin, Uranga, Atxaga ta Manterolarekin... Horixe dio Balearen seigarren bertsoaren bigarren parteak. Balea harrapatu zuten arrantzaleen patroiak dira, **1901eko maiatzaren 14ko ehizaldi haren protagonista nagusiak**, balearekin batera.

**Z**er dakigu bost arrantzale haien gainean? Bilaketa lan txiki bat egin dugu, gizon haien berri zuei emateko. Kaleko eskaileretan, Oa kalean dagoen Gure etxea soziedadean, bost traineru daude sabbaitik zintzilik. Balea harrapatu zutenen errepika txikiak dira. Bakoitzak idatzita dauzka ontziaren izena eta patroiarena.

Bost gizon haien izen-abizenak eta jaiotze-data herriko Elizan bataiatutakoen artxibotik hartuak dira, bertako apaiz Unai Manterolak utzita.

## Manuel Olaizola Lerchundi, 1861-04-23

Bertsolariaren zerrendako aurrena da Olaizola. Urte ona izan zuen Manuelek XX. mendearen hasierakoa: maiatzean Kantauriko azken balea harrapatu eta irailaren 9an oriotarrentzako Donostiako aurreneko bandera irabazi. Bietan patroi joan zen; maiatzean, Trinidad traineruan, eta irailean, San Antonio izenekoan. Orion garai hartan sei arrantza-traineru omen zeuden.

Berrogei urte zituen Manuelek balea harrapatu zuten egunean. Arrantzan eta arraunean patroi ibili zen, arrantzarako eta arraun lehiarako ontzi berberak erabiltzen ziren garaian, baporea asmatu baino lehenagokoan. Donostiako 1901eko bandera irabazita, oinez itzuli ziren herrira, Igeldotik barrena, herrira ailegatu aurretik Muniotan geratuta sagardo pixka bat edatera.

Zazpi aldiz jokatu zuen Donostiako estropada, bost bandera irabazi. 67 urte zituela, 1923an sortutako Ciaboga arraunaldizkariak elkarrizketa egin zion Olaizolari, Oriora etorrita.

Kazetaria erdaraz hasi zitzaion Manueli, harik eta konturatu zen arte Manuelek ez ziola ulertzen. Orduan aldatu zen euskarara. Adibide polita orduko Orioko gizarte ia erabat euskarazko elebakarrarena.

1930ean, Donostiako udalak, ordurako arraunak bereganatua zuen ospeagatik eta Donostiari ematen zioten izenagatik, omenaldia egin zien Olaizolari eta San Pedroko Aita Manueli, bi patroi handiei. Esker onez, gorbata bana oparitu zien.

Laurogei urte zituela hil zen Manuel, 1941eko abenduaren 11n.

## Manuel Loidi Rezabal, 1877-04-09

Aita oriotarra zuen, Juan Jose Loidi; ama, Altzolakoa, Maria Jacinta Rezabal. Orioko Goiko Kalean jaio zen, eta bertan bizi izan ziren. Kaskazurinekoak deitzen zieten familia hartakoei. Horrela gogoratzen du Zarautzen bizi den Manuelen anai baten alaba Pepita Loidi 94 urteko emakumeak.

Hogeita lau urteko gaztea zen Manuel, balea harrapatu zuten egunean. San Antonio traineruaren patroi itsasoratu zen, bere gizonekin.

1909an, oriotarrek Kontxako bigarren bandera irabazi zuten, Olaizola patroi zutela. Urte hartan oriotarrek beste estropada bat besterik ez zuten jokatu. Biarritzen izan zen. Hangoa ere irabazi egin zuten, baina han patroi ez zen Olaizola joan, Manuel Loidi baizik.

Estropada hark berezitasun bat izan zuen: patroia eta hamabi arraunlari lehiatu ziren. Irabazleek urrezko txanpon bana eskuratu zuten.

### Jose Cesareo Uranga Garate, 1868-04-20

Xixario Uranga ere apirileko egun batez jaio zen, Olaizola eta Loidi bezala. Hirurak, udaberriaren hasieran, maiatzaren atarian. Xixariok 33 urte zituen *Maria Jose* traineruan balea harrapatzea joan zenean. Berarekin zihoan Maria Jose ontzian bere anaia Antonio Maria ere -1869-09-25-; gerora Orioko arraunlarien traineruko patroia handia izan zena, Donostiako 4 bandera irabazi zituen gizona. Zortzi senide ziren, haietako lau arraunean ibili ziren traineruan, bat itsua zen, Ramon itsua. Antonio Mariaren seme bat, Ramon Uranga, barran itota hil zen 1961eko martxoaren 4an, herriko alkate zela.

Gizon handia zen Xixario, 1,90etik gorakoa. 1957ko apirilaren 13an hil zen. Halaxe gogoratzen du Luis Mari Urangak, aurten 50 urte bete dituen Xixario jatetxeko gaur egungo nagusiak. Xixario haren ondorengoena baita Orioko gaur egungo jatetxerik ezagunenetakoa, bixigua erretzen Euskal Herrian famarik handienetakoa duen Xixario erretgia. Luis Mari Uranga nagusia balea harrapatu zuen Xixario haren birbiloba da: Xixarioren seme Ramonen seme Xixarioren semea.

### Eustakio Atxega Martikorena, 1864-11-02

Bertsoan Achaga agertzen da, baina badirudi Achega -Atxega- zela. Halaxe esan digu Jesus Mari Peronak, Eustakioren anaia Jose Maria Martinen birbiloba denak. San Jose ontzian joan zen Eustakio balearen bila.

Eustakio 1864ko azaroaren 2an jaio zen, eta 28 urterekin ezkondu Juana Marcela Elizalde Arostegirekin, 1892an. 1899an, Eustakio Atxega izeneko gizon bat izan zen Orioko arraunlarien patroia Donostiako estropadan, Ageda ontzian; balea harrapatu zuen berbera izango zen noski.

Eustakioren iloba bat, Jose Mari anaiaren alaba -Sebastiana Atxega Solaberrieta, 1898-01-20-, Jose Urretabizkaia-ekin ezkondu zen. Joxeri, Pasaiatik etorria zela-eta, *JoxePaxai* deitzen zioten. Joxe Paxai Orioko barran ito zen 1953ko abuztuaren 25ean, Manuel Manzaneseekin batera, haien on-



Julian eta Gregorio Manterola, semea aitarekin. IÑAKI ITURAIN

tzia galerna batek hondoratuta. Sebastiana Atxega oraingo Perona anaien eta Urretabizkaia anai-arreben amona zen.

### Gregorio Vidal Manterola Lersundi, 1870-04-09

Imanol Manterolaren Zarauzko amona Enkarnak kontatzen du Gregorio Manterola izugarri haserretzen zela, balearen bertsoetan bost patroietako azkena zelako. Hark ez zekien bertsoetan bukaera dela inportanteena. Gregorio Imanolen berraitona zen.

Imanolen aita Rafaelek esandakoaren arabera, Gregorio Manterola inklusatik ekarria zen, Txara edo Eixmendi edo inguru horretako baserriren batera. Haren ondorenekoei txaganekoak esaten zaie, beharbada Txarara ekarri zutelako, auskalo! Gregorioren biloba Santi Manterolak esandakoaren arabera, aitona Gregorio 1970-04-09an jaio zen eta Donostiako Alde Zaharreko San Bizente elizan bataiatu zuten, bataio-agirian ez da gurasoen izenik ageri.

Goiko Kanean bizi ziren, Piedadeko ermitaren kontra zegoen etxean, behe aldean. Emaztea Aiakoa zuen, Elola abizenekoa. Zortzi seme-alaba izan zituzten, lau mutil eta lau neska. Donostiako moilan *jaungoikoa* gaitzizenez ezagutzen zuten. Gizon handia zen. Igande gauetan Buruandinekoen sagardotegira joaten zen, musean egitera, biloba batek lagunduta. Zinegotzi izan zen. Arrantzatik erretiratutakoan, baratza gobernatzan hasi zen, Santo Tomas feriako lehiaketara eramaten zituen barazkiak.

San Juan txalupako patroia joan zen balearen bila. 1958ko urtarrilaren 19an hil zen.

**BALEAREN EGUNA**





# Biei kantatzearen alde

Orioko Xaltxerek itzalean izan diren saregileak omendu zituzten **Sareak josteaz gain herri honek arrantzarekin duen lotura ere josi baitute saregileek.** Bailearen Eguna beren eguna ere badela aldarrikatu zuten.

## Saregileei bertsoak ROSILAZKANO

**1**

Mila bederatzirehun  
ta lehenengo urtian,  
nahiz ez ditugun hartu  
aintzat gaur artian,  
emazte eta amak  
ez lanan faltian  
gizonez kok arrantzan  
ziren bitartian

**2**

Bost ume egindako  
hamaika emazte,  
aita ikusi gabe  
igual lau-bost aste,  
etxean zeukatenak  
zeregin hainbeste  
moilara joaten ziren  
deitu bezain laiste.

**3**

Pisuz ez ziren mila  
ta berrehun arrua,  
hala ere nola ez  
xamurtu barrua,  
aitortzea ez denez  
ekintza harrua  
har dezatela gure  
txaloen orrua.

**4**


Hau horrela ez bada  
herriari galde,  
zenbat lan egin zuten  
goiz ta arratsalde  
bale haren arrantzak  
zituen bi alde  
eta gu gaude bie  
kantatzean alde.



**BALEAREN EGUNA**







**BIDEOAK**

**Saregileei omenaldia**



@karkara.eus/orio/  
1463239275141



**Eskerrik asko Marije eta Iñake**



@karkara.eus/orio/  
1463240287442



**Bezperan, danborrada**



@karkara.eus/orio/  
1463552193750



**Balearen Eguna 2016**



@karkara.eus/orio/1463385142102





## HASI TXIOKA



**Martin Kitto** @martin\_kitto · mai. 14

#baleareneguna Oriyon. Elektrotzaranga "Todos los días sale el sol, chipirón" jotzen. #BaleaEtaTxipiroiak



3



**amarauna** @amarauna · mai. 14

#Orio antzerkia egiten ari ez diren bakarrak #Saregileak Esther Regidor & Inma Peiro laister zuzenean #BalearenEguna



**jon artano izeta** @jonartano · mai. 14

Bost treñeruak era arraunlariak ere prest  
#BalearenEguna



**gabezin** @gabezintaldea · mai. 15

Ederra atzokoa!

Aupa Orio jarraitu horrela!!

#etxeluzegaztetxea #baleareneguna



**Jose Mari Bidasoro** @jmbidasoro · mai. 14

Duela 115 urte azkeneko balea harrapatu zuten Orion. Gaur egun haundia  
#baleareneguna



**Elisa** @ElisaManterola · mai. 14

Giro polita Oriyon #baleareneguna



**Karkara** @karkaraeus · 6 seg.

#baleareneguna izeneko kanal berezian bildu dugu Balearen Eguneko eduki guztia: argazkiak, bideoak, informazioa...



**izurde** @izurdebo · mai. 17

Ni ere Orion #baleareneguna ospatzen.



Orio: Balearen eguna 2016

Orion bost urteak behin ospatzen den Balearen eguna

youtube.com

